

IKASTETXEAREN PROIEKTUEN LABURPEN FITXA

Ikastetxearen izena / Nombre del centro

Antigua – Luberri BHI

Herria / Localidad

Donostia

Proiektuaren izena / Título del proyecto

“Fisika eta kimikako problemak kasu errealetatik abiatuta. Baliabide informatikoen erabilera”

Harremanetarako pertsona / Persona de contacto

Joxean Andrés, Mikel Lizeaga.

Korreo elektronikoa / E-mail

Proiektuaren laburpena / Resumen del proyecto

Batez ere Fisikaren irakaskuntza aldatzeko asmoarekin hasi ginen berriztatzeko proiektuekin orain dela urte batzuk. Hasieran, ordenagailuaren erabilerak eskaintzen zituen aukerak erabiltzea zen eta simulazio programak eta esperimenterazioak OLEz egitea. Pixkanaka laborategia hornituz joan gara.

Ongi hornitutako laborategi batek “paper eta arkatzezko problemak”, ariketa-galderak, eta ohiko praktikak fisikoki egitea ahalbidetzen du. Hainbatetan,, jarduera horiek digitalizatu egin daitezke eta, ondoren, azterketa matematikoa burutu daiteke.

“Ongi hornitutako” laborategia diogunean, ez da pentsatu behar oso tresna garestiz hornituta izan behar duenik halabeharrez. Garestiak ez diren tresnekin sortu daitezke problemak egiteko egoera interesgarri eta erakargarriak.

Konpetentzia zientifikoak gertaera zientifikoak **ulertzea** badu xede, gure ahalegina zeregin honekin uztartzen da. Ulertu gabe aplikatzen den ezaguerak zientzien funtsezko irizpidearen aurka egiten baitu, “arrazionaltasunaren” aurka.